

**AUGUSTIN ZUBIKARAIREN NARRAZIO-TEKNIKAK:**  
**ANTON GUZURRETXE**

Oraintsu hil den Augustin Zubikarai idazle ondarrutarraren lana, ugaria ez ezik, leku askotan argitaratuta dagoenik ezin uka. Kontaezineko liburuak, artikulak, aldizkariak... dira bizkaitar horren lekuko eta eramaile. Horien artean, esan beharrik ez dago, gure KARMEL hau ere.

Ozen aldarrikatu dira, haren ospea finkatzeko, antzerki eta kazetaritza-lanak. Ez horrenbeste, nire iritziz, prosa- eta olerki-idaztiak.

Horrexegatik, hain zuzen ere, abagune egokia deritzot KARMELe eskaini didan honi, besteak beste, Zubikarairen egina gogoratzeko eta gogorarazteko, sarri-sarri aipamen hutsetatik irakurketa eragingarrira doan bidea egiten ere saiatu ez baikara.

Ahaleginak ahalegin, honetara jarri naiz, eta, nire burutazioen gidaria, hark ondutako emaitzen artean, aspalditxo mamitutako testuan aurkitu dut. Izan ere, harako testu berezia eta berezitua da *Anton Guzurretxe* eleberria Zubikarairen ekarpenen, bertara batzen baititu, nire ustez, ohiko izan dituen ezaugarri nabariak.

Badu, bestalde, liburu horrek aparteko zirrara haren lan-zerrendan, berori baita 1979. urtean Euskaltzaindiaren "Txomin Agirre eleberri saria" ekarri ziona.

Bi aurpegiko txanpona, hortaz, honako hau, Augustinen sorkuntzan. Klasikoa, eta, aldi berean, sariduna, kanpoko aitorpena erdietsi zuena. Batez beste, haren nondik norakoak zehazteko lanabes egokia.

Hainbatez, hor ere nire ekinean ibiltzeko norabide batzuk, Zubikarairen nobelagintzan nabarmen eta ageriko izan, eta betidanik azpimarratu direnak: herrikotasuna, berezko hizkera, esaldi laburrak... Horiek oro dira harengan bilatu nahi izan diren literatura-trazak.

Beude, haatik, halakoak, osterantzekoak ere premiazkoak baitzaizkigu, argumentu ganorazkoak ondu nahi izanez gero. Horretan, bistan da, lerro batzuk papereratu behar, Augustin Zubikarairen eleberria zer-nolakoa den zirriborratzeko.

Ohiko formak erabili dituela, eleberri *tradizionala* jorratu duela, betiko narrazio-eskematik aide egiteko saiorik burutu ez duela... Halakoak erruz eta erraz esan ohi dira euskal literaturaren eskulibumetan, Zubikarairen lana epaitzeko orduan.

Nireak, aldiz, beste iparra izan nahi du, gauzak dauden daudenean baino zertxobait harago joan, eta, menturaz, haize freskoagoa ekarri, idazle ondarrutarraren zeresana hobeto kokatzeko gure egungo bizimoduan.

Ez naiz aurrekoak eztabaidatzen larregi luzatuko. Bai, ostera, Zubikarairen liburuek beti-beti sortu didaten zirrara azaltzen, hark esku-erakutsiaz erabili zituen baliabide eta teknika batzuk hurrenez hurren deskribatzeko. Zernahi gisaz, harek herri-hizkera eta herri-literaturaren grina testuaren zerbitzuko jarri zituen, irakurle euskalduna erakartzeko asmotan.

Ez bide da langintza horretan premia handikoa narrazioaren haria burutik burura zehaztea. Ezta, era berean, xehe-xehe

agortzea eleberriaren osagai guztiak, eurok niminoenak badira ere.

Eite desberdinekoak hobetsiko ditut, jakinik, hori bai, nire horrek beste xederik ez duela Zubikarairen egitekoa azal-azalean plazaratu eta irakurlearen eskuan jartzea baino.

Esanaren argigarri izan daitezke, beraz, honako hauek:

1. Asmotik ekintzara: eleberriaren helburua.
2. Ahotik idatzira: herri-hizkera, literatura-bidea.
3. Narrazio-teknika bereziak.

Hiru horiek izango dira nire jakin-minaren hartzailleak.

#### 1. ASMOTIK EKINTZARA: ELEBERRIAREN HELBURUA

Augustin Zubikarai idazlea ondarrutarra da. Ondarroako herria hartzen du kokaleku, eta ondarrutarrak, testuaren hartzaille nagusi, jarraian ikusiko denez. Alfer-alferrik, aldiz, herri-txokorako eleberri baten aurrean uste dutenak, begien bistakoa baita Zubikarairen testuak bestelako gogoia daukala, hots, Ondarroako eta ondarrutarren tradizio euskalduna, berez-berezkoa, bildu eta gainerako euskaldunei eskaintzea, horiek hizkera biziaren iturburuetan edan dezaten, nahaste eta ordezkorik gabe.

Horretara, argi uzten du liburuaren hasieratik bertatik, nori eskaintzen dion:

Eskintza:  
Eleberri (nobela) au ez dakit zeineri eskini;  
Askori nai ta ezin daneri,  
baina bat aukeratzekotan, zuri,  
biotzean zaitudan erritar orreri<sup>1</sup>.

Gerora ere, Zubikaraik ez du inolako arazorik eleberriaren gertalekua argitan jartzeko. Herria du buruan, hain justu ere, Ondarroa bera. Arranondotik Ondarroara, Agirrerengandik

<sup>1</sup> A. ZUBIKARAI, *Anton Guzurretxe*, La Editorial Vizcaina, Bilbo, 1979, 7. or.

Zubikarairengana, bada, izenetan behinik behin, jauzia eta tarteak.

Idazleak, hala ere, Ondarroa bera ez du gogora ekartzen 13. orrialdea arte:

Ikustekoa da lengo gizaldian, Ondarroa ko barran, esate baterako, zenbat txalopak tira-bira egin eben eta zenbat gizon itto ziran<sup>2</sup>.

Artean, Zubikaraik badu iraganarekiko lotura eta miresmena. Beren beregi aldarrikatzen du lehenengo Ondarroa, zeregintsu, neke-lorretan zebilena, oraingo erraztasunik gabe:

Gure kaletako sarrerak gaurko begiz ikusi, edo ta oraingo molla barik, aitz eta ondar bakarrik egozala ikusi; gaurko txalopak begiztatu bertako sartu-urtenetan, edo ta erramutan ain zuzen be sarrera orretan arduratsu eta arretatsu egin bear ebezan uneak gogoratu, ur bidean be, kanalean be, ondo barik, egaletako horma zuzendari barik, zirri-zarra egunetan ur bidea nundik eioan be konturatu ezinda, patroiairen zurtasunaren kontura lagata... gaitz gaur ziurtasunez orduko arriskuakin konturatzea<sup>3</sup>.

Lehenagokotasun horretara doa; horren bila dabil. Bilatze horretan ere, ez da bete-betean Agirreren lorratzekoa. Hori, abadetzaren indarrez edo, gogorragoa da moral-kontuetan, herritarren arteko berbeta ematen maisua bada ere. Zubikaraik, oster, zuzeneko oihartzuna jasotzen du, herriaren ahots berbera, motz, labur, lehor, ironia puntu gozatsu batekin... Zirikatzaileagoa, agian, Zubikarai, Agirre baino? Horra hor gako, irakurle bakoitzak gogokoen duenaren arabera aurkitu beharrekoa.

Itxurak antzaldatuta badator ere Zubikarai, funtsean badaki berak helburua non duen; herritar euskaldunari berezko eta

<sup>2</sup> Idem, 13. or.

<sup>3</sup> Idem, 12. or.

ezagun zaizkion egitate batzuen bitartez, euskara bera lantzea, hur-hurrean duen moldean girotua.

## 2. AIHOTIK IDATZIKA: HERKI-HIZKJIRA, LITERATURA-BIDEA

Lehena bada helburua, bigarrena aurrekoaren morroi dator, herritarrari, eta, oro har, euskaldunari, eskaini nahi diolako Zubikaraik bere lana.

Horretarako, hartan-horretan ibili beharrean, hizkera irakur-garriaren aldeko apustua egiten du hark. Euskara *erraza* deitu ohi zaio horri, eta berehalako konparazioak egin dira euskaldun berrientzat asmatutako irakur-materialaren eta Zubikaraiaren artean. Hari single horretan, Zubikarai izango litzateke euskaldun zaharrentzat euskara errazaren apostolua, irakurzaletasuna pizteko giltza duena, batez ere, bizkaitarren artean.

Bego horrela, baldin eta esaten ez bada jarraian *erraztasun* horrek *errazkeriara*. daramala Augustin Zubikarai. Nire aldetik, erraza baino, ulergarria izendatuko nuke halakoa, errazaren esangurak errazegi eraman baikaitzake gaitzespenaren osinera.

Era berean, argi dago, nire ustez behinik behin, herri-hizkera hori ez dela erabiltzen errazaren izenean eta ohorean, komunikazioa erdiesteko gogoaz baino. Idazleak komunikazioa sortu nahi du irakurlearekin. Horretarako tresna hizkera da. Zubikaraik urte askotako eskarmentua izan eta herri-hizkeraren aldekoa da. Ondarroako berbeta du oinarri; gero, zabal-kunde egoki batez, mendealdeko euskararen osagaiak bertaratu eta hizkera-ereduaosatzen du, irakurle euskaldunaren erosotasunerako.

Jakin badaki berak halakoetan dagoela erdibidea, eta jakitun da, ildo beretik, Ondarroako hizkerak badituela gipuzkoar eta bizkaitar printzak. Gerra zibil batek (1936-1939) erakutsi zion hori, *Eguna* euskarazko egunkariarentzat prosa-moldea egokitu beharrean jardun zuenean.

Zin-zinez, hiztegia, esapideak... guztiak dira esanaren erakusle. Har ditzadan puntu batzuk:

### 2.1. *Joskera*

Askorentzat harrigarria bada ere, Zubikaraik gutxitan (ia inoiz ere ez) darabil joskera korapilatsua. Euskara mordoiloa ez zaio laket. Salbuespenekoa da berarentzat esaldi menderatuak kateatzea. Horretan, bada, ahozko hizkeratik hurbil dago.

Inoiz perpaus menderatuak baditu, berehala dator ahapaldiaren amaiera, esaldi nagusiaren indarra laino artean gera ez dadin:

Itxasertzetik barrurago eioalako, barruko aizeak obeto laguntzen eutselako, aize olatu makalerako bere txalopa biziago be ba zalako, berak artu eban, treneru bi lentxuago, barrako sarrera<sup>4</sup>.

Lerrakera nabariagoa du aposiziorako, izen-sintagmak metatzeko joera, adierazgarritasunaren eragina hobeto bereizteko. Irakurlea ere arin-arin doa halakoetan, batetik bestera eta neke handirik gabe, idazlearen lumak jartzen duen erritmoaren arauan. Irakur, bestela, leku baten deskripzio labur bezain gihartsua, aditza bera elipsian dela:

"Mostradore" egalean arasa zar, illun, zedenak jandakoa, eta bertan, pattar botilla banakak, aguardiente katalana, etxean egindako ginda likorra<sup>5</sup>.

### 2.2. *Luma-printzak*

Joskera modu horrek darama Zubikarai hizkera zoli eta bizi horretara. Aditz bakarreko esaldiak arrapaladan datoz, eta, jakina, idaztankera berehalakoan dator. Luma-printzak dira nagusi, eta, inpresionismoaren antzera, nonahi daude, narrazioa-

**Idem, 93- or.**

**Idem, 17. or.**

ren esparrua margotu arte. Emaizta, edozein modutan ere, ez da argi-iluna, halako irudi zirriborratua, errealismoan sendo errotutako argazki indartsua baino.

Idazlerro horiek, lehen so batean bederen, idazlearen islak dira. Idazleak berak, esan legez, herriarengan du iturri. Emaizta, nondik nahi begira dakiola ere, maisu-lana:

Inguru oncik eta aterpe oneik, geroago, mutil txikien edo bizartu bako mutil uletsuen eskuta tokiak izaten ziran, ingelesian, txapetan, edo kartetan jokatzeko.

Baita aienak erre ta gizon berotasunak artzen asteko, be.

Aterpeak, geienetan, ke ta lurrunez beteta egoten ziran. Sartu orduko jantziak be ke-atsez lagateko eran.

Antxe batzen ziran lotarako errira etozan ijitoak, motxaileak, eta bertan laga be su-ondoak, trapu zarrak, lasto ondakinak eta jateko onduak.

Zarrak eta mardulak nekez sartzen ziran eurentan, euri zaparraden baten andik ebiltzala bidean artu ezik, edo ekaitz gogorretan bertaraino joan eta andik itxaso zabalera zirriztada luzeago bat egiteko asmoz joan ezik.

Zikin toki zirala ta ezeztu zituen asko<sup>6</sup>.

### 2.3- *Hiztegia*

Joskera ez ezik, Zubikaraik baditu, artean-martean, hizkera apaintzeko moduak. Adierazgarritasunaren aide, hiztegia datorkio laguntzaile eta sorospide, irakurleak betidanik ezagutu dituen hitzak barra-barra idoro dituela testuan barrena:

—Legramua baino baltzago<sup>7</sup>.

—Ai ni, mantsin au!<sup>8</sup>

—Itxasotea dago<sup>9</sup>?

—Eta bere atzean, tanbuletean, Peru<sup>10</sup>.

<sup>6</sup> Idem, 11. or.

<sup>7</sup> Idem, 18. or.

<sup>8</sup> Idem, 69. or.

<sup>9</sup> Idem, 82. or.

<sup>10</sup> Idem, 87. or.

- Irurogetak urteko mutilla zer izaten da<sup>11</sup>?  
 —... ez yakon txepetxik kalean igaroko<sup>12</sup>.  
 —Erriko fisikoa, medikua, an egoan, eta zurbil ikusten zan. Abadea azken otoitzak egiteko jantzita. Eskribadu lako bat be an egoan, paper bat eskuetan ebala<sup>13</sup>.  
 —Neska orrek ez dabela ogetak urtetan amarik ezagutu, eta bere ama zana, bere amatzakua, inguru oneitakoa dala esan dautsela<sup>14</sup>.  
 —... sasoi baten txanke ezpatea baino zorrotzago ibiltzen zan tabernan<sup>15</sup>.  
 —Guazen emendik, Millan, erriko bandan<sup>16</sup>.

Antzematen ditu, beraz, irakurleak belarrira ezagun zaizkion hitzak. Ezagunak, eta esan bedi argi, hunkigarriak aldi berean. Aspaldikoak izan eta irakurleak badaki, haurtzaroko eta gaztaroko joko eta jardunetan oharkabe ikasitakoak gozatzeten eta berreskuratzen. Irakurketa aberastu egiten da, eta irakurleak, ia-ia konturatu gabe, etxekoak ditu eleberriaren protagonista eta ingurugiroak.

Areago, irakurlearen berrespen horretan, herri eta esparru geografiko zehatz horren barruan, kontraposizio jokoa dakar idazleak. Zubikaraik, igarri-igarrian, Ondarroaren eta Lekeitioaren arteko gorabeherak erabiitzen ditu, hizkera-mota eta -mailak desberdintzeko eta agerian uzteko:

- Saldokiak?  
 —Txilik?  
 —Lekeitiarren berbakin zatoz zeu be ta!  
 —Zegaitik?  
 —Noiz deitzen dautse Ondarroa'n saldokia erdiko tostari?

<sup>11</sup> Idem, 110. or.

<sup>12</sup> Idem, 108. or.

<sup>13</sup> Idem, 137. or.

<sup>14</sup> Idem, 150. or.

<sup>15</sup> Idem, 152. or.

<sup>16</sup> Idem, 199. or.



—Dana dala. Ulertuko eban, nunbait. Baifia ala esan bear ba da...

Zer erdiko tostak? Gainerako erdiko tosta, sagaltokia ez da ba<sup>17</sup>?

### 3. NARRAZIO-TEKNIKA BEREZIAK

Helburuak zehaztuta, hizkera eta idaztanka horren itsumutil, apaingarriak behar ditu idazleak. Ondo hornituta dagoe-la esan daiteke, jarraian azalduko dena plazaratu ostean. Egin-eginean ere, euskara biziaren seinale zalantzagabekoak dira hauek, eta arras erabilgarriak, hark zuen asmoa osabetetzen eta biribiitzen dutelako.

Horrelakoetan, bestalde, benetako idazlea kanporatzen da, ofizioa duena. Zailtasunak garaitzen dakiena da hemen hitz egiten diguna.

#### 3.1. *Deskripzioak*

Dela pertsona edo protagonista batena, dela leku batena, Zubikaraik zatika osatzen du irudia, azkena arte giltz guztiak eman gabe. Ez dator tupustean eta artez, trabeska eta ezari- ezarian baino. Badaki neurtzen:

Gogorra zan Anton.  
 Garratza.  
 Arpegi zurbil, luxenga.  
 Begi zorrotz, urtenak, bekoki estu, belarri andi, zudur zulo zabal, okotz zapal.  
 Ulea, ule motza, baifia betea. Beltzerana.  
 Izketan, berbetan, sikua.  
 Borondatez, ixil zalea.  
 Izakeraz, latza.  
 Txalopan, lanean, danen esanetan, alegintsua, eginkorra.  
 Itxasoan, nai ta ausarditsu izan ez, bildur bakua.

<sup>17</sup> Idem, 91. or.

Ta inok ez ekian nuntarra zan.  
 Lenengotan, errira etorri barritan, Anton. Beste barik.  
 Gero Anton "ostatu"; geroago Anton "Petra".  
 Deitura bat eta bestea, batera etozan: Petra'ren ostatu an bi-  
 zi zalako.  
 Guzurretxe'ko Anton esaten eutsen azkenetan<sup>16</sup>.

Mai luze bi alderdi baten,  
 beste txiki bi aurrean,  
 eurak ainako jarrileko edo banku luzeak;  
 barruan, atzean, sukaldea.  
 Sukaldearen albuan karkaba.  
 Karkaba, ke-bide edo tximini zulo.  
 Barru ta kanpo ketan, aize andien bat gertatu ezean; argi-  
 tzat, sarrerako ate txikiak eta bere ondoko metro inguruko  
 leiotik artzen ebana egunez, eta kurtzailluena gabetan<sup>19</sup>.

### 3.2. *Puntuazioa eta agerpen grafikoa*

Berebiziko pisua du horrek, esaldi laburraren itsasoan ku-  
 lunka baitabil idazlea. Ahapaldiak motzak dira, sarri-sarri esal-  
 di soil-soilak. Nahiago du egileak pentsamendua moztu, esal-  
 diaren irrada hautsi gabe. Izatez, puntu eta aparte ugari horiek  
 eieberriaren ardatzan daudela esan daiteke, hariaren zati esan-  
 guratsu direla.

Alaxe izan be.  
 Lagun onak eukazan Mitxel'ek.  
 Baifia Ganix'ek aurea artu eutsan. Aren didar eta oiua,  
 aren agindu eta aletinak<sup>20</sup>!

<sup>18</sup> Idem, 9. or.

<sup>19</sup> Idem, 17. or.

<sup>20</sup> Idem, 93- or.

33- *Elkarrizketak*

Hona hemen, Zubikarai moduko antzerki-idazle batentzat, gairik kutunena. Ezertan hasi aurretik, esan dezadan bor-borreetan dagoela eleberriaren barruan antzerkiaren kutsua.

Elkarrizketak, maiz, taula gainean antzezteko modukoak direla esan daiteke. Antologiakoa denez gero, bi pertsonaien arteko autua, batak besteari ostatuaren kontua eskatu bitartean:

- Kontua.
- Ba dakizu.
- Ez dozu esan.
- Betikua.
- Karaillu, betikua! Patatak merkeago dagoz orain.
- Ia, ekarri.
- Azak or dagoz basterretan, inok nai ez da.
- Ekarri, ekarri.
- Nik ekarri ta zuk kobratu?
- Orrelakorik ez dot oitu.
- Arraina be zer?
- Ia, joan...
- Antxo bota-botaka dabil.
- Ekarri ta ipini zeuk.
- Ardaua be, ba dakizu, naparra bakarrik. Napar baltz siku ori. Naiago dot nik errioxakua.
- Ortarako ura merkena.
- Eta ino! Oraingoan lenago baino kaneko lodiagoak ekarri dozuz.
- Karuagoak.
- Baina lodiago diran lez arda gitxiago artzen dabe.
- Zeuk konpondutako lapiko eta kazularak lez.
- Ia Petra, urrengo baten etorteko be.
- Etorriko zara, bai, nik nai ezarren. Zeinek nai ostatuan zu lako gosekil-bat?
- Aste guztian egon naz erri alu onetan eta ezer atara ez.
- Bai jokorako, demoniena!
- Ba dakizu, jokoa denpora pasa da.
- Ifioren kontura.
- Ez zara joango etxetara andrak lotan dagozan orduetan.

- Ezetz? Pozik zu!
- Dana dala, jokoa ordu batzuk gaindutea da.
- Esan dot len be, inoren kontura.
- Nungo inoren kontura?
- Ta, atara kontuak<sup>21</sup>.

Batzuetan, antzerki-lanaren hutsuneak ere papereratzten dira:  
(Ixilune astuna)<sup>22</sup>.

### 3.4. *Bertsoak*

Hitz hauen artean tartekaturik, egileak badaki bertsoak, ko-plak eta enparauak sortzen. Elkarriketa batzuetan halakoxeak egiten ditu, puntuz puntu doana pertsonaien artean. Badirudi bertsolarien edo ditzolarien arteko norgehiagoka dagoela horretan, eleberri baten buruz burukoa baino. Berrero ere arintasuna, adierazgarritasuna, irakurlearentzako gozotasuna.

- O! Uste bako arrera.
- Jaunari emon eskerra.
- Ez dakit ondo natorren.
- Apaltasuna da jatorren.
- Ondarrutarrik egon al zan emen inoiz monja?
- Ia egunero datoz andik arraina emonga.
- Ez, jakin nai dodana...
- Barrukoa ha da emen ixilpean gordeten da dana.
- Ara, nire aita Arturo zan. Arturo.
- Hermana, no me des pan duro. Ori zan bere lenengo eskabidea.
- Ba eukazan orrelako urteerak.
- Ez ziran makalak amaierak.
- Ta neska zalea ei zan.
- Guk tornutik barrura dakigu bakoitza nor dan.
- Ara, bere alaba naz ta ez dakit nor zan ama.
- Beartsu izan lei edo etxe andiko dama.

<sup>21</sup> Idem, 22, 23 eta 24. orr.

<sup>22</sup> Idem, 207. or.

—Mesedez, olgetan lez zabiltz bertsotan.  
 —Olaxe egiten dogu barman be salmotan.  
 —Nik ama billatu nai dot, nirea.  
 —Emen gaitz orrelako baten bidea.  
 —Mesedez, zenbat ondarrutar egon dira monja?  
 —Neguko gosetean etorri ta udan ospa.  
 —Ez al da etorri inor maitasunik galduta?  
 —Ona datorrena beti dator mundua salduta.  
 —Aidean ipinten clautazuz kirioak.  
 —Oraintxe kantatu bear nik Kirieak.  
 —Esnea artu dozu?  
 —Katillua or daukazu.  
 —Parkatu. Aurreko etxeean sakristanak poztuko zaitu.

Eta tornoa irauli zan gilin-galanka.  
 Eta monjatxoa eskutatu Agur Mari esanka<sup>23</sup>.

### 3-5- *Bestelako osagaiak*


Azpimarragarriak izan daitezke etnografiatik jasotzen dituen kantak edota ipuinak, gertakariak eta abarrekoak. *Anton Guzurretxe* eleberrian, gainera, galegoaren sarrera ere ezinbestekoa da, protagonista batzuk hizkera horretakoak baitira.

Zubikaraik *Lugoko ipuinak* itzuli zituen, eta orrialdeetara ekartzen ditu, beldurrik gabe, Galizako kantak:

O Preino manxador  
 chegou a perder o unto,  
 levarono a Santa Comba  
 cun habito de difunto...<sup>24</sup>

<sup>23</sup> Idem, 159 eta 160. orr.

<sup>24</sup> Idem, 74. or.



Bide labur horretan bada, amaitzeko, bestelako erregistro-rik, askoz maila formalagoa erakusten duena. Zubikaraik, horratio, pertsonaia baten testamentua edo azken nahia barruratzten du narrazioaren bilakaeran. Herrikotasuna erabat galdu gabe, hor dira hitz jasoagoak {zinaidari...}, formula performatiboak {Nik, Petra Burgoa, ezkongia... agertu nai dot...}.

Nik,  
 Petra Burgoa,  
 ezkongia,  
 nire eriotza ba datorkidala konturatuta,  
 bizi onetatik beregana deika daukadan Jaunaren aurrean,  
 eskribadua bitarteko dala,  
 nire borondate, naimen eta gogoz,  
 inguruko ez inungo lotutasun eta estuntza barik,  
 nire azken nai au egin eta agertu nai dot:

Barbara eta Liberata, nire aitzak ezagutzen dodaz.

Barbara bizi dan etxearen irutik bat nire jaubetasuneko da, gure gurasoak ezer egin barik joan ziranean, iru aitzok bardin-tsu geratu ginalako.

Bere ordezt eun errial, nire aldezt mezt esan dagiezan. Ori egin ondoren etxearen nire zati beretzat. Ala egin ezik, zati ori eleizaren jaubetasunean geratu bedi.

Liberata bizi dan etxearen irutik bat, nirea da. Bere ordezt eun erriak erriko gaixotegiari. Emon ezik, zati ori gaixotegiarena izango da.

Batak eta besteak urte beteko epea dabe orretarako.

Anton Guzurretxe deituraz ezagutzen danarentzat, nigaz seme antzera portatu izan dalako, orain bizi naizen etxea, toki,tresna, diru eta jantzi guztiekin. Bakar bakarrik au kenduta; Kirruzko izara bi, komodan dagozan lau bardinetik bi, eleizari eskini bear dautsoz, aldaretako izarak egiteko.

Eta bera ezkongai dala ilgo ba litz, erriarentzat geratu dedi-  
11a dana, nire aitzak orretan eskubiderik artu barik.

Bai eta adierazi nai dot gogoan dodazala Barbara eta  
Liberata'ri, orain ogetak urte, erritik urten ebenean, biurtzeko-  
tan aurreratu ta emondako diruak, baina euki leiken ez ordain-  
tzearen kezka baketzeko, parkatutzat emoten dautsedazala.

Azkenez, garbi agertu nai dot, pekatari izan ba naz be, se-  
kula ez dodala seinik euki.

Gure parrokoa eta erriko fisikoa dira nai onen zifialdari  
(testigu)<sup>25</sup>.

#### 4. ANTON GUZURKETXE-REN AITZAKIAN

Zenbait puntu izan daitezke, orain arte idatzitakoaren lorra-  
tzetik, saio honen laburpen eta oinarri. Hurrean ere,  
Zubikarairen ahalegina, herriko euskara bildu, literaturarako  
tresna bihurtu eta euskaldun guztiei eskaini, betiere aspaldiko  
tradizioari eusten diola.

Ez zuen horretarako hautsi behar lehendik zegoen mende-  
baldeko euskararen tradizio idatzia, ezta herrian herriko txoko-  
keriak areagotu eta nabarmendu ere. Aitzitik, beti jokatu zuen  
euskaldunok batzen gaituzten osagaiak eta ezaugarriak zokon-  
doratu gabe.

Edozein idazlek ederkaturak ditu gogokoen, lanaren ma-  
miari nahiz azalari buruz. Ederkaturak ederkatura, Zubikaraik,  
aldiaren sena eta boiadaren igarle, eredu bat eskaintzen jakin  
zuen, hain zuzen ere, herriko euskaratik abiatu eta tresna ba-  
liotsua izan dakigukeena egun ere... berori ondo ezagutu, az-  
tertu eta erabiliz gero.

Ez nator ni, ez, Zubikarairen eleberri-mundua huts-hutsean  
erreibindikatzeraz. Badakigu horretan egungo premiak eta be-

<sup>25</sup> Idem, 156 eta 157. orr.



harrizanak bestelakoak direla. Gaurko "idazleek" (begirune osoz idazten dut hau ere), beharbada, irrino maltzur batez erantzungo dute Zubikarairen lana aipatzerakoan, joanaren eta gaingituaren seinale. Aldien kontuak izaten dira horiek eta jakina, arin igarotzekoak.

Aldiak, alabaina, Joan badoaz, berriak etorri datozen bitartean. Joan-etorri horretan, nire ustez, Zubikarairen eginak, euskara biziko bada ere, oso-osorik gordeko du haren esanahia. Baditu horretarako erro eta eustazpi sendoak, besteak beste, oraindik euskaldun dirauen herri honen bizimodua eta berbeta.

*Andres Urrutia*